

eman ta zabaldu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ehukultura

Egitaraua | Programa

IRAILA-ABENDUA SEPTIEMBRE-DICIEMBRE 2020

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU. Bilbao

www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia

GETXOPHOTO 2020

Instalazioa / Instalación

Irailak 3 – 25 septiembre

Sarreran / En el Hall. **Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

Sarrera libre aretoa bete arte / Entrada libre hasta completar aforo




Mentalgassi talde alemaniarrek Getxophoton aukezten duen *Waste Wastes* proiektuak hondakinen gai arantzatsu eta konplexua mahaigaineratzen du. Horretarako ikusgai bihurtzen du pertsona bakoitzak sortzen duen zarama, zabor poltsetan aurpegiak ipiniz eta hauek hiriko kaleetan barreatuz. Kale artisten hirukote honek, hiri-interbentziotan ibilbide luzea egina daukana, gaur egun ingurumen-arazorik handienetakoan ipintzen du arreta, norberak sortzen duen hondakin kopuru handia azpimarratuz.

El proyecto *Waste Wastes*, que el colectivo alemán Mentalgassi estrena en Getxophoto, aborda un tema tan serio y complejo como el de los residuos. Para ello hacen visible la producción de basura de cada persona, fijando rostros impresos en bolsas instaladas en las calles de la ciudad. El trío de artistas callejeros, con una larga trayectoria en la intervención urbana, centra la atención en uno de los problemas medioambientales fundamentales en la actualidad, haciendo hincapié en la gran cantidad de desechos que cada persona genera día a día.

Artistak / Artistas: *Mentalgassi - Waste Wastes*

Lankidetzak / Colaboran: EHU Kultura & Goethe Institut



BIBA VOI: DARÍO FO ETA FRANCA RAME AKORDUAN

Antzerkia / Teatro

Irailak 16 septiembre

🕒 19.30

Sala Oteiza Aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Doako Sarrera. Edukiera mugatua Covid-19 neurriak jarraituz.

Entrada gratuita. Aforo limitado por normativa Covid-19.



Dario Fo (Literatur Nobel Saria) eta Franca Rame-ren bizitza artistikoaren, euren izaeraren, lanen, ideologiaren eta konpromisoaren errepaso egiten da ikuskizun honetan, bikoteak idatzitako obra desberdinen pusketak taularatuz modu umil eta hurbilean. Patxo Telleria-k idatzitako gidoiaren bitartez, antzezleek testu batzuk irakurri, beste batzuk interpretatu egiten dituzte publikoa bi artista horien bizitza bidaian murgiltzeko. Erabilitako antzezlanen artean ditugu *Anarkista baten ezusteko heriotza* (Julia Marin-ek itzulia), *Pistolaren begi zuri beltzak* (Jon Aurre-k itzulia), *Lazaroren berpizketa* (Patxo Telleria-k itzulia) eta *Emakume guztiok dugu historia bera* (Xabi Paia-k itzulia), besteak beste. XX eta XXI. mendean, bizitza betearen aldeko apustua egin zuten bi pertsonen azpimarragarriren inguruko obra.

Ikuskizun mota: Irakurraldi eta bakarriketa antzeztuak

Aktoreak: Mikel Martinez, Irati Agirreazkuenaga

Ekoizpena: Tartean Teatroa, Loraldia

Iraupena: 50 minutu

BARRO ROJO

Antzerkia / Teatro

Urriak 14 octubre

🕒 19.30

Sala Mitxelena Aretoa.Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Doako Sarrera. Edukiera mugatua Covid-19 neurriak jarraituz.

Entrada gratuita. Aforo limitado por normativa Covid-19.



Europako kontzentrazio esparru batean eta Francoren kartzeletan giltzapetu zuten gay bat. Haren historia bidaia gisa kontatzen du ilobak, Amelia transformistak. Bizitzako hainbat historia batzen dira, fikziozko historia bat osatuz, ia ikerketa lana den obra honetan.

Un gay fue encerrado en un campo de concentración europeo y en las cárceles de Franco. Su historia es a su vez contada en forma de viaje, por su sobrino, la transformista Amelia. Diferentes historias de vida que se funden formando una historia ficticia en esta obra que es casi un trabajo de investigación.

Zuzendaria / Dirección: Daniela Molina, Linda Wise

Sorkuntza eta testua / Creación y texto: Javier Liñera

Antzezlea / Intérprete: Javier Liñera

Argiztapenaren diseinua eta teknikariak / Diseño de iluminación y técnicos: Patxi Pascual, Aitor Pérez

Ekoizpena / Producción: Javier Liñera

Iraupena / Duración: 01:15

mikroesZena

Antzerkia / poesia / dantza / musika
Teatro / poesía / danza / música

Azaroak 11 noviembre

Sala Chillida Aretoa

Doako Sarrera. Edukiera mugatua Covid-19 neurriak jarraituz.
Entrada gratuita. Aforo limitado por normativa Covid-19.

Fósforos - Momentos de vida

Antzerkia / teatro

Azaroak 11 noviembre

🕒 19.00



Antzezleak / Intérpretes: Tania Fornieles, Yeray Vázquez

Zuzendaritza / Dirección: Ane Pikaza, Tania Fornieles,
Yeray Vázquez

Teknika eta ekoizpena / Técnica y producción: Tania Fornieles,
Teray Vázquez

Iraupena / Duración: 20'

Gizon bat bere oroitzapenei aurre egiten. Oroitzapenei aurre egiten bizitzari aurre egiteko. Ikasiko du uneak bizitzeko direla. Ikasiko du pospoloak norbaitek isiotu ditzan direla.

Fósforos - Momentos de vida (Pospoloak - Bizitzako momentuak) antzerkiaren, musikaren eta magiaren lengoaien bidez bakardadea, dolua eta esperantza bezalako gaiak garatzen dituen lana da.

Félix Angulo Saria 2019 ikuskizun onenari.

Un hombre se enfrentará a sus recuerdos. Se enfrentará a ellos para afrontar la vida. Aprenderá que los momentos existen para ser vividos. Aprenderá que las cerillas existen para ser encendidas.

Fósforos - Momentos de vida es una obra que, a través de diferentes lenguajes como el teatro, la música y la magia, desarrolla temas como la soledad, el duelo y la esperanza.

Premio Félix Angulo 2019 al Mejor Espectáculo.

Gontzal Díezen “Poemas de la galerna y otros textos inéditos” liburuko poema aukeratuak

Selección de “Poemas de la galerna y otros textos inéditos” de Gontzal Díez

Poesia / poesía

Azaroak 11 noviembre

🕒 19.30



Poemen hautaketa/ selección de poemas: Blanca Ausín
Errezitatzen du / recita: Ricardo Franco
Aholkularitza /asesoramiento: Inmaculada Corcuera

Poemas de la galerna y otros textos inéditos (Ed. El sastre de Apollinaire, 2018) Gontzal Díezen (Bilbo, 1961 – 2013) lehen poemen bilduma bat da, 1986an idatzitakoak, Alonso de Ercilla Euskadi Saria jaso zutena.

Poemas de la galerna y otros textos inéditos (Ed. El sastre de Apollinaire, 2018), es una recopilación de los primeros poemas de Gontzal Díez (Bilbao, 1961 – 2013), escritos en 1986 y por los que recibió el Premio Euskadi Alonso de Ercilla.

Bere obra propioaz axolagabe eta bere bertsoekin muturreraino diskretu, poema edo poeta batekiko grina berehala kutsatzeko gai zen. Poesia beti izan zen egiten zuen guztiaren grabitate zentroa, eta bere poema liburuetan ez ezik, bere kronika, erreportaje eta elkarrizketetan ere agertzen da.

Beste poeta batzuek diotenez, Gontzal Díez ezagutzeko beharrezkoa da jakitea, poeta bikaina izateaz gain, kultur kazetari, argazkilari, literatur kritikari eta arte kritikari handia izan zela, prestakuntza intelektual handiko kulturako langilea, irakurle amorratu eta eskuzabala, bere garaiarekin konprometitutako polemista. Bere bizimodu bakarra, bere aita poetikoa, Juan Larrea, bezala, pasioa zen.

Despreocupado de su propia obra y discreto hasta el extremo con sus versos, era capaz de contagiarte al instante el entusiasmo por un poema o por un poeta. La poesía siempre fue el centro de gravedad de todo lo que hacía, y no sólo está presente en sus libros de poemas, sino que impregna sus crónicas, sus reportajes, sus entrevistas.

Otros poetas dicen que para conocer a Gontzal Díez también es necesario saber que, además de un excelente poeta, fue un gran periodista cultural, fotógrafo, crítico literario y crítico de arte; un trabajador de la cultura con gran preparación intelectual, lector ávido y generoso, polemista comprometido con su tiempo, cuyo único modo de vivir, al igual que su padre poético, Juan Larrea, era el modo de la pasión.

BOBO

Dantza / danza

Azaroak 11 noviembre

🕒 20.00



Idea, sorkuntza eta interpretazioa / Idea, creación e interpretación: **Koldo Arostegui**
 Argien diseinua / diseño de luces: **Marc Kanou**
 Jantzi-diseinua / Vestuario: **Patricia Arostegui**
 Argazkia / Fotografía: **Dani Hernández**
 Iraupena/ Duración: **20 min**

Eskerrik asko laguntza artistikoagatik / Gracias por el acompañamiento artístico:
 Jon Munduate, Dani Hernández, Olatz de Andrés, Neus Villa, Isaak Erdoiza
 Laguntzaileak / con la colaboración de: **La Fundición Bilbao, Dantzagunea**
 (Sortutakoak 2018), Harrobia, Utopian Getxo

Espazio intimo batetik, haurren linbotik, nire gainean mugitzen diren muga aleatorio horiei guztiei begira nago, harrituta, normaltasuna normaltasun ezetik bereizten saiatuz. Besteen begiradak eta gizartearen inertziak presa sartzen didate, mugak normaltasunaren aldean kokatuko nauen lekura korrika joan nadin. Hala ere, ez daukat batere argi hor egon nahi dudan.

Desde un espacio íntimo, un limbo infantil miro perplejo a las millones de fronteras aleatorias que me sobrevuelan, definiendo lo normal de lo que no lo es. La mirada de los demás y la inercia social me apresura para que me esfuerce y corra hacia el lugar donde la frontera me coloque en el lado de lo normal. Sin embargo, no tengo nada claro si quiero correr hacia allí.

Matías Kaplun Trío

Azaroak 11 noviembre

Musika / música

🕒 20.30



Bruselako Jazz kontserbatorioan 5 urtez ikasi eta Buenos Airesen 2 urteko egonaldia egin ondoren, Matias Kaplun jaioterrira itzuli da, eta, orain, Bilbon bizi da. Bertako jazz eszenan azkar integratuta, "Matias Kaplun Trío" proiektuari jarraipena ematea erabaki du Kike Mora (baxua) eta Carlos Sagi (bateria) euskal musikariek osatutako talde berriarekin.

Errepertorioa, batik bat, argitaratu berri den "Río" albumean jasotako konposizio propioek osatzen dute. Proposamen musikal bat da, konposizioaren eta inprobisazioaren, jazz modernoaren eta jazz fusioaren arteko leku bitxi horretan kokatzen dena, izaera melodiko nabarmena duena eta pop eta rockari keinuak egiten dizkiona.

"Disko eder eta eklektikoa 'Río' hau, argi eta beroz beterikoa."
(Distrito Jazz, Iñigo Ortega)

Tras 5 años de estudios en el conservatorio de Jazz de Bruselas y una estancia de 2 años en Buenos Aires, Matias Kaplun vuelve a su país natal y se instala en Bilbao. Rápidamente integrado en la escena jazz local decide dar continuidad a su proyecto "Matias Kaplun Trío" con una nueva formación integrada por los músicos vascos, Kike Mora (bajo) y Carlos Sagi (batería).

El repertorio está formado fundamentalmente por composiciones propias recogidas en el álbum de reciente aparición "Río". Se trata de una propuesta musical que se sitúa en ese extraño lugar a medio camino entre la composición y la improvisación, entre el jazz moderno y el jazz fusión, con un marcado carácter melódico y guiños al pop y al rock.

"Un ecléctico y bonito disco este 'Río', lleno de luz y calor." (Distrito Jazz, Iñigo Ortega)

CLARISSE

Musika / Música

Azaroak 16 noviembre

🕒 19.30

Sala Mitzelena Aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Doako Sarrera. Edukiera mugatua Covid-19 neurriak jarraituz.

Entrada gratuita. Aforo limitado por normativa Covid-19.



Clarisse errepidera itzuli da. Urte batzuk joan dira *Alas Cortadas* (2011) lehen diskoa argitaratu zuenetik. Mugaldeko pop-rock gisa katalogatu zuten haren estiloa.

Urteotan kontzertuak eman, eta heldutasun pertsonal nahiz musikalera iritsita, Estibaliz Moyano bueltan da, taldearen lehen lanaren esentziari eutsita, baina pop-rockaren gaineko ikuspegi zabalago batekin.

No te conozco, da igual diskoa gitarra akustiko, kontrabaxu eta pianoaren doinuez osatuta dago. Tinbre eta sonoritate berriek sortzen duten giro horretan nabarmenago aditzen dira Estibalizen arima eta ahotsa, western zaharretako bala bat zuen bihotzetara zuzenean balihoa bezala.

Clarisse vuelve a la carretera. Han pasado algunos años desde la publicación de su primer disco «Alas Cortadas» (2011) que sentó las bases de un estilo que fue catalogado como pop-rock fronterizo.

Tras estos años de conciertos y de maduración personal y musical, Estibaliz Moyano vuelve liderando un proyecto que mantiene la esencia del primer trabajo de la banda, pero que muestra una concepción más abierta del pop-rock.

«No te conozco, da igual» es un disco compuesto a golpe de guitarra acústica, contrabajo y piano. Es en este ambiente generado por nuevos timbres y sonoridades donde irrumpe sobresaliente el alma y la voz de Estibaliz que entrará como una bala de los viejos westerns directa a vuestros corazones.

Ahotsa eta gitarra / Voz y guitarra: Estibaliz Moyano

Kontrabaxua eta koruak / Contrabajo y coros: Alex López

7AK BAT. GAIZTOETAN GAIZTOENAK

Antzerkia / Teatro

Azaroak 25 noviembre

🕒 19.30

Sala Mitzelena Aretoa.Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Doako Sarrera. Edukiera mugatua Covid-19 neurriak jarraituz.

Entrada gratuita. Aforo limitado por normativa Covid-19.

EUS



Nondik dator gizakiaren gaizakeria? Berezkoa da? Ekidinezina da? Gure kulturako zazpi pekatu kapitalak eta orokorrean pekatuaren ideia hartu eta, Victor Frankensteinek egin eban moduan, gizaki barri bati bizia emongo deusagu, groteskoa, basatia, gupidabakoa...

Komeria, satira eta sarkasmoaren lengoaiagaz, guztiok alfonbra azpian ezkutatu ohi doguna, agerian geratuko da.

Zuzendaritza: ATX Teatroa

Antzezleak: Mirian K. Martxante, Aiora Sedano, Estibaliz Villa

Musika: Zarzaparrilla

Iraupena: 01:00

DANTZALDIA

Nazioarteko Dantza Jaialdia 2020

Festival Internacional de Danza Bilbao. 2020

Abenduak 3 diciembre

Sala Baroja Aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Doako Sarrera. Edukiera mugatua Covid-19 neurriak jarraituz.

Entrada gratuita. Aforo limitado por normativa Covid-19.



Dantza moderno eta garaikidearen azalpena (I. Azalp.)

Explica la danza moderna y contemporánea (Expl. I)

🕒 18.00

Toni Jodar Espainia eta Katalunia-ko dantzari esanguratsuenetariko bat da dantza garaikidearen alorrean. Jarduera honetan dantzaren historia era bitxi batean azaltzea du helburu.

Beraren gorputzarekin irudikatzen du dantzaren denboraren iragatea, eta bere eskarmentua eta umorea baliatzen ditu "performance"

Toni Jodar, uno de los bailarines representativos de la danza contemporánea del Estado español, propone una manera singular de explicar la historia de la danza.

Ilustra con el propio cuerpo el paso del tiempo de la danza, y utiliza su experiencia y humor para hacer una "performance pedagógica" en sí creativa

pedagogiko" bat egiteko, berez sormenezkoa eta entretenigarria dena. Dantza klasikotik garaikiderainoko bilakaera erakusten du, erreferentzia eginez gorputzak mugimenduan bere burua adierazteko erabiltzen dituen genero eta formei.

y amena. Muestra la evolución del clásico al contemporáneo, haciendo referencia a los diversos géneros y formas que utiliza el cuerpo para expresarse en el movimiento.

Hitzaldi dantzatu bat. Gaurko joerak (II. Azalpe.)

Una conferencia bailada. Tendencias actuales (Expl. II)

 19.30

Proposamen honek jarraipena ematen die bere aurreko piezako edukiei: *Dantza moderno eta garaikidearen azalpena.*

Esta propuesta da continuidad a los contenidos de su pieza anterior: *Explica la danza moderna y contemporánea.*

Hitzaldi dantzatu baten xedea da publikoaren itaun honi erantzutea: 'Eta Pinaren ostean, zer?'

El objetivo de *Una conferencia bailada. Tendencias actuales* es preguntar y hacer reflexionar al público sobre la siguiente cuestión: Y después de Pina, ¿qué?

Toni Jodar-en kontakizuna bere ohiko formatuan azaltzen da, hau da, hitzaldiaren eta ikuskizunaren artean. Orain dela gutxiko historiaz eta gaur egungo joerez hitz egiten digu, bere esperientzia profesionalak markatu dizkieten maisu-maistrak gogora ekarriz. Azalpenean

El relato de Toni Jodar desde su formato conferencia espectáculo repasa los referentes de la danza y de los movimientos que han sacudido los cuerpos, junto a los acontecimientos que han modificado nuestro mundo. Un cambio de paradigma en el que multitud de

zehir gorputzak astindu dituzten dantzaren erreferenteengandik eta gure mundua eraldatu duten gertaeretatik igaroko gara. Paradigma aldaketa horretan joera askok eta askok egiten diote beren ekarpena forma berrien fusioari eta esperimentazioari eta tradizioen berrirakurketari.

tendencias contribuyen a la fusión y a la experimentación de nuevas formas, así como a la relectura de las tradiciones.

Adierazlea / Explicador: Toni Jodar

Gidoia / Guión: Toni Jodar

Dramaturgia eta eszenaratzeko oinarria / Dramaturgia y soporte puesta en escena: Víctor Molina. (*I. Azalp / Expl. I*). Helena Tornero (*II. Azalp / Expl. II*)

Irudia / Imagen: Toni Roura. (*I. Azalp / Expl. I*); Jordi Soler y Àlex Serrano (*II. Azalp / Expl. II*)

Kudeaketa eta ekoizpen artistikoa / Gestión y producción artística: Beatriu Daniel

Zuzendari kideak / Co-dirección: Beatriu Daniel y Toni Jodar

Edukien ikerketa eta prestaketa / Investigación y elaboración de contenidos: Bàrbara Raubert y Toni Jodar

Komunikazioa / Comunicación: Sara Peralta y La Taula



CONTADO POR ELLAS

Antzerki-dokumentala / Teatro documental

Abenduak 15 diciembre

🕒 19.30

Sala Mitzelena Aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Doako Sarrera. Edukiera mugatua Covid-19 neurriak jarraituz.

Entrada gratuita. Aforo limitado por normativa Covid-19.

CAS



Nire birramona espetxera eraman zuten, hilabete bitan, bere etxetik seiheun kilometrora, bere hiru alabak bakarrik utzita. Contado por ellas antzerki-lana egiteko, gerra bizi zuten hiru andrazkoren benetako lekukotzak hartu ziren oinarriztat. Bi Castellonekoak dira, lan honetako egilearen jaioterra, eta beste emakumea Bilbokoa da, gaur egun bizi den hiria.

Ikuskizun hau emakumezkoei egindako omenaldia da, Guda Zibila, gerraondokoa eta

A mi bisabuela la metieron en una cárcel durante dos años a seiscientos kilómetros de su casa. Tuvo que dejar solas a sus tres hijas. "Contado por ellas" es una pieza de teatro creada a partir de la investigación y documentación de la vida de mujeres -testimonios reales- que vivieron la guerra. Dos de ellas son de Castellón, donde he nacido, y las otras dos de Bizkaia, donde vivo ahora.

Este espectáculo es un homenaje a las mujeres, que vivieron la Guerra Civil, la posguerra y el

frankismoa bizi zuten horiei.
Elkarrizketetatik eta lortutako dokumentaziotik abiatuta, lan honek babeslekuen bizitza kontatzen digu bonbardaketetan, emakumezkoen bizitza espetxeetan, emakumezko langilea gerraondan, errepresioa, hobi komunak, erbestea...

franquismo. A partir de entrevistas y de documentación recogida, el espectáculo nos habla de la vida en los refugios durante los bombardeos, la vida de las mujeres en las prisiones, la mujer trabajadora en la posguerra, las represalias, las fosas comunes, el exilio...

Antzerki testuala, bideoa, performancea eta zuzeneko elkarrizketak ikusleekin.

Teatro textual, video, performance y conversaciones directas con el público

Esker onak/ Agradecimientos: Maite Garai, Marcela Navarro, Carmen Portolés, Asociación Memoria Histórica de Sestao (Bizkaia), nuestras familias por toda la información aportada, Bilboeszena y Ayuntamiento de Bilbao.

Egilea, zuzendaria eta aktorea/ Creación, dirección e interpretación: Bea Insa

Testua/ Texto: Bea Insa
(Elkarrizketetatik eta lortutako dokumentaziotik abiatuta)

Argazkia eta bideoa/ Fotografía y vídeo: Ángel Mirou

Jantzien diseinua/ Diseño de vestuario: La Pacheca Collective

Argien diseinua/ Diseño de luces: La Pacheca Collective / Patxi Pascual

Ekoizpena/ Producción: La Pacheca Collective

Iraupena/ Duración: 50 min

ISPIRIT

Sweet Inspiration

Gabonetako kontzertua / Concierto de Navidad

Abenduak 18 diciembre

🕒 20.00

Sala Mitxelena Aretoa

Doako Sarrera. Edukiera mugatua Covid-19 neurriak jarraituz.

Entrada gratuita. Aforo limitado por normativa Covid-19.



ISPIRIT Ainhoa Eguiguren, Lidia Insausti eta Lide Hernando abeslariak Iñaki Miguel pianistarekin elkartu zirenean jaio zen. Urteak eman dituzte elkarrekin lanean, blues, soul edo gospel estiloko hainbat projektutan. Ispirit joera espiritualeko musikan oinarrituta dago eta, batik bat, gospeletik eta souletik edaten du. Gaur egun, ikuskizun berria aurkezten du: "Sweet Inspiration"

ISPIRIT nace con la unión de las cantantes Ainhoa Eguiguren, Lidia Insausti y Lide Hernando y el pianista Iñaki Miguel, quienes ya venían años trabajando juntos en diversos proyectos de estilos como el blues, el soul o el gospel. Ispirit está basado en música de semblante espiritual y bebe del gospel y del soul, y presenta su espectáculo "Sweet Inspiration".

**Miembros / kideak: Lide Hernando (ahotsa/voz),
Lidia Insausti (ahotsa/voz), Ainhoa Eguiguren (ahotsa/voz)**
Pianoa / piano: Iñaki Miguel

EsZena

UPV/EHUko kideek eta kide ohiek sustatzen dituzten jarduera eszenikoak dinamizatu eta hedatzeko proiektu bat da, ehuKultura-Bizkaiak antolatzen duen programazioan parte hartuta.

Arte eszenikoetako konpainiek parte hartu ahalko dute ehuesZenan, betiere gutxienez konpainiako kideetako bat UPV/EHUko kidea bada edo izan bada azken lau urteetan (ikaslea, irakaslea, ikertzailea, AZPkoa edo ehualumni).

Erakusten diren proposamen guztiekin batera eztabaida foro bat, antzetzutako gaien sakontzeko eta konpainiako kideen eta ikusleen arteko partaidetza sustatzeko. Dinamika hauek Bizkaiko Kultur Gestiorako Bulegoak antolatuko ditu.

Es un proyecto de dinamización y proyección de actividades escénicas promovidas por los miembros y ex miembros de la UPV/EHU a través de su participación en la programación que se desarrolla desde ehuKultura-Bizkaia.

Podrán participar en esta iniciativa las compañías de artes escénicas en las que al menos uno de sus integrantes pertenezca o haya pertenecido en los últimos cuatro años a la UPV/EHU (Alumnado, Personal Docente e Investigador, Personal de Administración y Servicios o ehualumni).

Las propuestas representadas se complementarán con una sesión de debate o mesa redonda, cuya finalidad será ahondar en la temática de lo exhibido y propiciar la participación entre los miembros de la compañía y el público asistente. Estas dinámicas serán organizadas por la propia Oficina de Gestión Cultural de Bizkaia.

Antzezlanak Bizkaia Aretoan aurkeztuko dira, ikasturtean zehar, eta gehienez ere 2.000 euroko aurrekontuarekin ekintza bakoitzeko.

Las representaciones se llevarán a cabo en el Bizkaia Aretoa, durante el curso académico, y con un presupuesto máximo por iniciativa de 2.000 €.

 www.tinyurl.com/esZena

Nola jaso 'EHUkultura-Bizkaia'ren informazioa zure posta elektronikoa?

UPV/EHUK Bizkaian antolatzen dituen kultur jardueri buruzko informazioa jasotzeko zerbitzuan alta ematea doan nahi duten lagunek webgunean eman behar dute izena esteka honen bidez:

¿Cómo recibir información de EHUkultura-Bizkaia en tu email?

Aquellas personas que quieran darse de alta gratuitamente en el servicio de recepción de información de las actividades culturales de la UPV/EHU en Bizkaia, solo tienen que suscribirse en la web, a través del enlace:

 <https://www.ehu.eus/es/web/ehukultura-bizkaia>

EHUorkestra sinfonikoa



UPV/EHUren helburuetako bat da kultura sustatzea, hala erakunde barruan nola erakundetik kanpo. Ildo horretan, errektorego taldeak unibertsitatearen orkestra

Uno de los fines de la UPV/EHU es fomentar la cultura dentro y fuera de nuestra institución. En este marco, en junio de 2016 el Equipo Rectoral se planteó la creación de una

sinfonikoa eratzea pentsatu zuen 2016ko ekainean, beste unibertsitate batzuk egin duten bezala.

Gure unibertsitateko edozein kidek har dezakete parte, baina EHUorkestra sinfonikoa irekita dago, baita, unibertsitatekoak ez direnei, proiektu horretan parte hartzea nahi duten guztiei. Entseguak ostegunetan izaten dira, 17:00etatik 20:00etara, Leioako Campuseko Areto Nagusian.

Parte hartu geure orkestran!

Orquesta sinfónica propia, al igual que las existentes en otras universidades.


Puede participar cualquier persona de nuestra comunidad universitaria, pero EHUorkestra sinfonikoa también está abierta a la participación de cualquiera, externo a la Universidad, que quiera colaborar en este proyecto. Los ensayos son los jueves, de 17 a 20 h, en el Aula Magna del Campus de Leioa.

¡Anímate a participar en nuestra orquesta!

 www.ehu.eus/es/web/bizkaia/orkestra-sinfonikoa



Gogoratu maskara erabili behar duzula.
 Recuerda llevar la mascarilla.



Zaindu pertsonen arteko segurtasun tarte eta saihestu kontaktu fisiko.
 Respeta la distancia de seguridad y evita el contacto físico.



Erabili gel hidroalkoholikoa.
 Utiliza los dispensadores de gel.



Ahal izanez gero, ez erabili igogailuak.
 Evita usar los ascensores.



Ezin dira erabili eserleku batzuk. Edukiera mugatua.
 Inhabilitación de butacas. Aforo limitado.




Sarrera eta irteera mailakatuak.
 Entrada y salida escalonada.



Temperatura zaindutako gunea.
 Zona termo vigilada.



Eraikina etengabe desinfektatzen eta aireztatzen da.
 Desinfección y ventilación constante del edificio.



MITXELENA

Aud. Vitoriano
Aud. Gernika
Aud. Ibañeta



TOA



Kultur Gestiorako Bulegoa
Oficina de Gestión Cultural

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU
Abandoibarra, 3 | 48009 Bilbao
Tf.: +34 94 601 21 04
+34 94 601 71 42
ehukultura-bizkaia.info@ehu.eus
www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia

